

## **Itunpeko irakaskuntzako sindikatuek oso larritzat jotzen dute Kristau Eskola eta AICEk EAEko hitzarmena bertan bera utzi eta Estatuko hitzarmena aplikatuko dutela adierazi izana eta ikasturte hasierarako mobilizazioak aurreikusten dituzte greba baztertu gabe**

Sektorean ordezkariak duten sindikatu guztientzat (ELA, CCOO, STEE-EILAS, LAB y UGT) oso larria patronalek hartu duten erabakia. Lan eta Negoziazio kolektiboaren erreformak ematen dizkien baliabide guztiak erabili nahi dituzte Eusko Jaurlaritzaren murrizketak langileoi inposatzeko eta lan-baldintzak okertzeko

*(Azaldu 2010etik patronalek aldebakarrez hitzarmenaren negoziazio mahaia hautsi duten arte gertaturikoa)*

Pasa den ostiraleko hitzarmenaren 16. Negoziazio Mahaian, ikastetxeetako langile gehienek oporrak hartu ondoren, Kristau Eskola eta AICE itunpeko irakaskuntzako patronalek mahaiko sindikatuoi jakin arazi digute, negoziazio mahaia hautsitzat ematen dutela eta uztailaren 7tik aurrera gure hitzarmena baliorik gabe geratzen dela ulertzen dutela eta aurrerantzean bere ikastetxeei pasa den ekainaren 19an Madril sinatu zen Espainiar Estatu mailako hitzarmena aplikatzea gomendatuko die (VI Convenio de Colectivo de Empresas de Enseñanza Privada sostenidas total o parcialmente con fondos públicos).

Horren baitan, soldatak gutxienez Eusko Jaurlaritzak kontzertazioetan egin dituen murrizketen mailara murriztea planteatzen dute eta beraien behar eta interesen baitan lan-baldintzak okertzea. Ikastetxeei egungo hainbat baldintza mantentzeko aukera uzten diete, baina inola ere ez gure hitzarmenak ezartzen dituen soldata-eta ulak. Kontutan izan behar dugu Estatuko hitzarmena nabarmen okerragoa dela soldatetan eta jardunean baita beste hainbat onura sozialetan ere, eta hitzarmen hau erreferentziatza hartzeak bide ematen duela aldebakarrez lan-baldintza horiek nabarmen okertzeko, horrek lan-baldintzetan eta hezkuntzaren kalitatean izango lukeen ondorio larriekin.

Patronalen iritziz eta erabakiaren erabat kontrako norantzan, sektoreko sindikatu guztiok, EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmenaren jasotzen denaren baitan, hitzarmenaren ultraaktibitatea uztailaren 7tik harago mantentzen dela ulertzen dugu eta horrela defendatuko dugu gure eskura ditugun tresna sindikal eta juridiko guztiekin. (Langileen Estatutuaren 86. art.: Salvo pacto en contrario, los convenios colectivos se prorrogarán de año en año si no mediara denuncia expresa de las partes+. EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmenaren 4 art.: %a 2009ko abenduaren 31 arteko iraupena edukiko du; aldi hori, hala ere, espresuki, behin-behingo eta halabeharrez luzatuko da, 2010eko hitzarmena indarrean jarri arte an+)

Sindikatuaren iritziz oso larria da bai Kristau Eskolak baita AICEk ere hartu duten erabakia, izan ere behin eta berriro EAEko gure hitzarmenaren alde daudela eta sektorearen zein bertako langileen interesak defendatzen dituztela aldarrikatu duten arren, Lan eta Negoziazio Kolektiboaren erreformak ematen dizkien instrumentu guztietaz baliatu nahi dute hitzarmena bertan behera uzteko, Madrilgo hitzarmena inposatzeko, Eusko Jaurlaritzaren murrizketak langileoi inposatzeko eta itunpeko irakaskuntzako langileon lan-baldintzak nabarmen okertzeko eta etorkizunean are gehiago okertzeko bidea irekitzeko.

Azken 25 urteetan sektoreko langileen aurkako erasorik larrienari aurre egiteko sindikatuok gure eskura ditugun baliabide sindikal eta juridiko guztiak jarriko ditugu martxan. Patronalek negoziazio mahaian adierazitako erabakiaren aurrean eta bere langileei horrela adierazten dieten ikastetxeen aurka gatazka kolektiboak jarriko ditugu, baita beharrezko diren norbanako erreklamazio guztiak ere. Modu berean, argi dugu baldintza hauetan ikasturte berria ezin dela normaltasunez hasi eta sektoreko nahiz ikastetxeetako mobilizazio ezberdinak lantzen ari gara greba alde batera utzi gabe.